



KONTSEILUBURUA: Lexuri Ugarte Aretxaga

KONTSEILUKIDEA: Inés Vadillo Alzola

KONTSEILUKIDE-IDAZKARIA: Daniel Martínez Monge

Gasteiz, 2020ko otsailaren 3a

andreak (NAN: egoitza, jakinarazpenetarako: helbide elektronikoa, jakinarazpenak eskueran jartzeko:) informazio publikoa eskuratzeko 2020ko urtarrilaren 13an aurkeztu zuen eskaeraren presuntziosko ezestearen kontra aurkeztutako erreklamazioa aztertu du Gardentasunaren Foru Kontseiluak.

AURREKARIAK

Lehenengoa.- Erreklamatzailleak, 2019ko abenduaren 3an, Arabako Foru Aldundiaren erregistro orokorrean honen eskaera aurkeztu zuen: "Informazioa Ikuskatzailtzako eta Baimenen Kudeaketako Ataleko buruaren lanpostuaren deialdiari buruz".

Bigarrena.- Giza Baliabideen Zerbitzuko buruak eskaera horri erantzun zion 2020ko urtarrilaren 17an, adierazita deialdi horretan "bere eskaera baino ez zela aurkeztu".

Hirugarrena.- 2020ko urtarrilaren 13an, Gardentasunaren Foru Kontseiluan erreklamazioa aurkeztu zuen informazio publikoa eskuratzeko eskaeraren presuntziosko ezestearen aurka, Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoaren gardentasunari, herritarren parte hartzeari eta gobernu onari buruzko otsailaren 8ko 1/2017 Foru Arauaren 35.2 artikuluan jasotako hilabeteko epea gaintu zelako eskaera ebazteko eta jakinarazteko.

OINARRI JURIDIKOAK

1.- Otsailaren 8ko 1/2017 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoaren gardentasunaren, herritarren parte hartzearen eta gobernu onarenak, 35.5 artikuluan eta lehenengo xedapen gehigarrian ezartzen duenarekin bat etorritik, Gardentasunaren Foru Kontseiluak dauka eskumena Arabako Lurralde Historikoko foru sektore publikoko erakundeen ebazpenen aurka aurkeztu diren erreklamazioak aztertzeko eta ebazteko.



2.- Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen lehenengo xedapen gehigarriaren arabera (informazio publikoa eskuratzeko eskubidearen erregulazio bereziak), “Abian den administrazio prozedura batean interesdun direnek prozedura hori osatzen duten agiriak eskuratzeari aplikatzekoa zaion araudia izango da, hain zuzen, dagokion administrazio prozedura arautuko duen araudia”.

3.- Erreklamatzailerak interesduna da Ikuskatzailtzako eta Baimenen Kudeaketako Ataleko buruaren lanpostua betetzeko prozeduran, eta, ondorioz, prozedura horretan sartzen diren dokumentuak eskuratzeko araudia funtzio publikoarena da, eta ez gardentasunarena (informazio publikoa eskuratzeko alderdiari dagokionez).

4.- Horrenbestez, eskatutako informazioa eskuratzeko ebazteko eskumena duen organoak ditu esleituta lanpostuak betetzeko prozedura hori ebazteko eskumenak, eta ez Gardentasunaren Foru Kontseiluak.

Horregatik guztiatik, Gardentasunaren Foru Kontseiluak, aho batez, hau hartu du:

EBAZPENA

Lehenengoa. Ez onartzea izapidetzeko 2019ko abenduaren 3an aurkeztutako erreklamazioa, informazio publikoa eskuratzeko eskaeraren presuntziozko ezestearen kontra.

Bigarrena. Ebazpen honek administrazio bidea amaitzen du, eta beraren aurka, administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu daiteke Gasteizko Administrazioarekiko Auzietako Epaitegietan, bi hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Lexuri Ugarte Aretxaga
Mahaiburua

Inés Vadillo Alzola
Kontseilukidea

Daniel Martínez Monge
Kontseilukide-idazkaria